

Mundu berri bat GUZTIONTZAT

© Edizioarena: Bizipoza Kultur Elkartea
© Ilustrazioena: Eñaut Aiartzaguena Bravo
© Diseinuarena Olatz Goikouria
© Musikarena: Xabier Zabala
Legezko Gordailua : D-1196-2020
ISBN: 978-84-09-24998-5

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S.L
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain (Gipuzkoa)

BIZIPOZA. Mundu berri bat guztiontzat

Zapaltzen dugun lurra askotan gozoa da, epela, samurra. Lasai joan gaitezke aurrera begira, bista gora altxatu, txilinbueltak egin, begiak lasai itxi eta amestu. Hain goaz lasai eta gozo, ez garela konturatzen gure pausajea eusten duen lurra berez ondo tenkatutako sarea dela, mimoz jositakoa. Baina batzuetan sarea laxatu egiten da, tarratatu bestetan. Eta lurrera begira joan beharra dago, estropezu ez egiteko. Lurrera begira doanak nekezago ixten digu begiak lasai ametsari pasatzen uzteko.

Bizipoza etengabe sarea josten, tenkatzen, konpontzen ari diren elkarteek osatzen dute. Elkarre horientzat lurra beti ez da epela eta samurra; gaixotasunek zulatua dago, beharrek zartatua, puntazorrotzeko trabek kolorgetua. Baina, oso garbi daukate beren haurrek ez dutela lurrera begira joan behar, lasai begiratu behar dutela aurrera, zerura, infinitura. Belauniko jarri eta sarea josten eta josten aritzen dira, belaunak urratu arren, orratzak hatzak ziztatu arren. Neketsua izan daiteke, baina beharrezkoa. Horregatik gailentzen zaie bizitzeko poza.

Sarea josteko prest dauden gero eta belaun urratu gehiago, hobe. Baina ez da bakarrik elkartasuna, ez da bakarrik ematearen plazera. Boluntarioen sarean ematen den adina jasotzen da.

Haurrak sakon hartu du arnasa. Ez du lurrera begiratu, ez dauka beharrik. Badaki zapaltzen duen lurra gozo besarkatuko duela eroriz gero ere. Akaso mina hartuko du erorita. Tira, minik gabeko pausajerik ez da existitzen. Begiak itxi ditu, besoak luzatu eta burua hurreratu du lurrera. Hankak kiribildu eta buelta. Arina eta indartsua sentitu da. Eta lasai etzanda geratu da lurrean, zeruari begira, sareak nola kulunkatzen duen sentituz.

Amagoia Mujika Telleria
-Bizipoza Elkartea-





Haur errefuxiatu sahararrak harreraren hartzeko programa.

01 OPORRAK BAKEAN-ekin solasean.

Nola gustatzen zaizun oinen azpian harea sentitzea. Edo elkarri hondarra botatzeari sentitzen duzuen askatasuna. Hondar hori, hain zuena eta inorena ez.

Hala ere, hondartzaren onena bainua da. Hondarraren onena ura da, itsasoa.

Ba, bada munduan inorena ez den hondarretara bota zuten jendea, haien hondarra ere ukatu zieten. Badira harea duten umeak, eta urik ez. Beroa, eta teilaperik ez. Gerra, gosea... eta errurik ez.

Oporrak Bakean proiektuak horretan laguntzen du, Saharako desertuan hareazko gaztelutxoak egiten. Bada zerbait.

Hondarrak ura behar duen bezala behar du umeak oporra, eta oporrek bakea. Zer iruditzen zaizu itsaso bihurtzen bagara?



02 AUKERAK ETA ZU

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Aner Euzkitze

Ahotsak: Aitor Gorosabel Garai eta Miren Narbaiza Martiartu

Kaixo! Saharar zapaldu eta desertikoak gu gara,
gure_ondasun bakar dugunak bizitza osoko udara.
Uztail eta abuztu, nahi dugu_harunztu, hatsa helburu.
Lurra ostua baitugu
denbora eskatzen dizugu.

Ez dira aski izango guretzako oporrak bakean,
oporretatik aparte bakerik ez daukagun artean.
Gerrara sortu gintuzten, bere bero eta baldintzapen,
hilabete batzuetan utziguzue ume izaten.

Eguzkiaren iluntasuna nahiko genuke argitu
askatasuna nahi duenak aukerak izan behar ditu.
Zu, euskaldun serio, solidario, gogoetatsu,
aukerarik badaukazu
bihurtu zaitez aukera zu.

Ez dira aski izango guretzako oporrak bakean,
oporretatik aparte bakerik ez daukagun artean.
Gerrara sortu gintuzten, bere bero eta baldintzapen,
hilabete batzuetan utziguzue ume izaten.

Gerrara sortu gintuzten, bere bero eta baldintzapen,
hilabete batzuetan utziguzue ume izaten.

Ez dira aski izango guretzako oporrak bakean,
oporretatik aparte bakerik ez daukagun artean.
Gerrara sortu gintuzten, bere bero eta baldintzapen,
hilabete batzuetan utziguzue ume izaten.
Hilabete batzuetan utziguzue aske izaten!



Aspanogi: Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarteak.
Aspanovas: Bizkaiko minbizidun haurren gurasoen elkarteak.

03 ASPANOGI ETA ASPANOVAS Elkarteekin solasean

Begirada batek zenbat esan dezakeen, eta besarkada batek zenbat eman! Bizipenek eta bizipozek talka egiten dute askotan, baina baita elkar elikatu eta babestu ere. Olatuak haitza nola, halaxe kolpatzen du minbiziak bizimina, baina itxaropenaren itsasora itzultzen da aldiro. Bizitzaren abordaiaren denok elkarrekin goaz, eta indarra dute lemazain pirata ausartek. Bizikide eta bizilagun dira Aspanogi eta Aspanovas elkarteak. Abordatzera!



04 PIRATEN INDARRA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Amaia Agirre Arrastoa

Ahotsa: Eñaut Elorrieta

Kolpea! Erraietan arrakala
beldurrak ahozabala
babesa ta zaintza profesionala
egia onartu ahala.

Haur baten begirada
Gazte baten besarkada
min eta bizimin
minbiziaren bi kriskitin
zu, ausardia, eredua, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

Etxeko txikienean irrifarra
itzaltzen ez den izarra
hori da gidari dugun iparra
txapeldun baten indarra.

Elkarte baten babes sentipena
mediku talde onena
batuta errezagoa da dena
ez galdu itxaropena.

Haur baten begirada
Gazte baten besarkada
min eta bizimin
minbiziaren bi kriskitin
zu, ausardia, eredua, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

Zu, ausardia, eredua, bizipoza
gu, familia, maitasuna ta bihotza.

BIZINAHIA!

Hiru Hamabi Elkarteak: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarteak.

05 HIRU HAMABI Elkartearekin solasean.

- Jaio ostean garuneko kaltea jasan duten adin txikiko familien elkarteak da Hiru Hamabi. Familien babes, haurren argi.
- Istripu, iktus, tumore eta abar.
- Adin txikikoentzat ez du ordea osasun publikoak laguntzarik eskaintzen. Asko falta zaio adin nagusiko izateko...
- Terapiara joaten naiz ni astero.
- Hitz egitea, Kontzentratzea, gauzak antolatzea edo fisikoak dira zailtasunetako batzuk.
- Hemen gaudet!!!



06 HEMEN GAUDE

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Julio Soto Ezkurdia

Ahotsak: Enrique Villarreal Armendariz "El Drogas"
eta Oihana Fernandez Iturri

Beti aldatzen ari zaiguna, hari mataza bat da garuna
Hari mataza bat da buruan duguna; hari mataza bat da
Eta gure garunek dauzkate hari mataza gehiago
Koloreztatuago, garuna dago, bihurriago!

Askotan gara ikusezin, gure ezinak ikusi ezin
Zabal itzazu begiak, nun, ia_ikusten gaituzun!

Aldatu zaigunetik bizitza, guztiok terapian gabiltza
Asko da guretzako pausotxo bakoitza; asko da guretzako
Harremanak goxatzen, marrazten, gorputza mugiarazten
Hitz egiten, jolasten, berritik hasten, beti ikasten!



gehitu.org

Gehitu Elkarteak: Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen elkarteak.

07 GEHITU Elkartearekin solasean.

-Zenbat kolore ditu uztargiak, sei bakarrik?

Kolore gehiago GEHITU beharko lirateke uztargi honetan.

-Ba bai, pertsonak bezala, itxura, pentsaera, sexu aukera, identitate guztietakoak, mundua bera den bezalakoa islatuz, anitza. Eta aniztasun hori askatasunean adierazi eta bizi behar dugu. Aukerak GEHITUZ, harrotasuna GEHITUZ, askatasuna GEHITUZ... Zer da bestela bizitzea askatasunik gabe?

Bizitzea da gorputza, askatasuna bihotza!!



08 BIZITZA DA GORPUTZA, ASKATASUNA BIHOTZA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Bihotz Gorospe

Ahotsak: Yogurinha Borova eta Bihotz Gorospe

Askatasuna izan nahi nuke nik ni neu naizena kaleratzean.
Harrotasuna adierazi nork bere bidea aukeratzean.

Utzi ni naizena izaten, izan zaitez zu zarena
pentsaerak zabaltzea da aukerarik ausartena.
Sei koloretako ortzadar zabaldu zure uztaiak
kolore guztiak jantzita ederrago da paisaia.

Aniztasuna izaeretan da jendarte honen aberastasuna.
Beldurrik gabe, lotsarik gabe, gaur hautsi ditzagun betiko mugak.

Sartu gure festara,
bizitza festa da eta!!
Bizitza da gorputza
askatasuna bihotza!
Aniztasuna bihotza!
Harrotasuna bihotza!

SARTU DENOK FESTA HONETAN
GOZATU, EZ IZAN LOTSA
BIZITZA GORPUTZA DA ETA
ASKATASUNA BIHOTZA.



Bihotzez Elkarte: Sortzetiko kardiopatiak dituzten Euskal Herriko pertsonen eta beraien familia-kideen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte.


09 BIHOTZEZ Elkartearekin solasean.

Badira kremlera batzuk kamiseten azpitik doazenak, bularreko azalari josita, eta kremlera hauen barruan ia beti dago bihotz ibiltari bat, kirolanoko argiak zenbatu dituen, itxarongelen lautadak zapaldu dituen, xarabezko lakuetan egon dena, eta nekatutakoan, atsedendak egiten dituen inurriei begira.

Bihotz ibiltariak kremlera barruan gordetzen dituzte ikasitako gauza guztiak, eta batez ere, bidea erraztu dieten lagunak.

Bihotzez Elkarteak ikusten ez den horri buruz hitz egiten du, azalaren azpiko bihotz desberdinez, azalaz haratagoko bizitza bereziaz.

Bihotzengatik, eta bihotzez.



10 ORBAINEN AZPIAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Nerea Ibarzabal Salegi

Ahotsa: Xabi Solano Maiza

Jarri esku bat bularrean
sumatzen al duzu barnean
tximeleta bat?

Bi hego, mingain kiribil...
zure behatzei muxuka dabil.

Mundu bat dut orbainen azpian.

Lorez betetako zelai bat biontzat,
hauxe eskatzen dit nire bihotzak.

Jarri burua bularrean
entzuten al duzu barnean
musikari bat?

Nota ozen, nota isil...
zuretzako vals bat jotzen dabil

Mundu bat dut orbainen azpian

Dantzatzeko pausu goxo bat biontzat,
hauxe eskatzen dit nire bihotzak.

Jarri begiak bularrean
ikusten al duzu barnean
itsas-argi bat?

Orain urrun, orain hurbil...
nire bidaia gidatzen dabil

Mundu bat dut orbainen azpian

Nik egunsentiak nahi ditut biontzat,
zer eskatzen dizu zure bihotzak?



Biak Bat Elkarteak: Animaliek lagundutako esku-hartzeak erdigune izanda, behar psikosozialak asetzeko proiektu sozial berritzailea.

11 BIAK BAT Elkartearekin solasean.

- Zer da zuretzat Biak Bat?
- Animaliengandik maitasuna jaso eta ematea.
- Hara, eta zer da zuretzat laguntasuna?
- Laguna ikustean bihotza pozez zaunka hastea.

Animalien ongizateak, pertsonen ongizatera!



12 AMIGO

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Leire Bilbao Barruetabeña

Ahotsak: Anabel Arraiza eta Mikel Urdangarin Abasolo

Zein ederra den, amigo,
zurekin na(g)oen aldiro
infernuetara jaitsi eta igo.

Dantza nazazu, astiro.
Zeinen ederra den, amigo.
lurra irentsi arren hodeiak dastatzea berriro.

Zure miraz nenbilen
neu ohartu baino lehen
ahoan kantu bat, eskuan mundu bat jarri zenizkidan ondoren.
Miazka dezagun bizitza elkarrekin
noiz arte zertarako jakin!
Ospa dezagun gauero ilargia
iluna zein argia.
Ospa dezagun biharko eguzkia
(e)ta datorren beste guztia.



Aspanif Elkarteak: Euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak dituzten haurren familien elkarteak, jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duena.

13 ASPANIF Elkartearekin solasean

- Aspanif erbi ezpaindun edo ahosabai hautsia duten haurren familien elkarteak da, batik bat, Euskal Herrian jarduten duena. Elkartearen helburu nagusia familiei informazioa eta laguntza eskaintzea da.
- Aspanif nire elkarteak da. Beno, gure elkarteak ze, urtean behin familia guztiak elkartzen gara eta asteburu bikaina pasatzen dugu elkarrekin!
- Eta seguru, itzel pasatzeaz gainera, hainbat gauza ikasten dituzuela elkarrekin.
- Ba, bai. Baina neure kontura ere hainbat gauza egiten ikasi dut.
- Adibidez?
- Haizearekin jolasten.
- Zertan?
- Zuk ere, "buru ederra baina barruan haizea", e? ... Txistua jotzen ikasi dudala!



14 HAIZEAREKIN JOLASEAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Ahotsak: Gari eta Josu Zabala

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.

Berezia izan omen nintzen/ ni jaio nintzen garaian
irribarre bikoiztua neukan/ zabal-zabala bisaian
hura desagertu zen baina dut/ zulo bat ahosabaian
haizea joan-etorrian dabil/ nirekin jolastu nahian
soinu jaian!

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.

Medikutara eginak ditut/ hamaika mila bisita
ez naizela izutzen martzianoz/ mozorrotuta ikusita
orain bihotza dut bularretik/ irten beharrez jauzika
haizea neure alde jarri dut/ badaukat neure musika!
Zer polita!

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.



Integrazio
BATZORDEA


Seaskako Integrazio Batzordea: Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuko ikastoletan eskolatuak diren ahalmen urriko haurren buraso eta adixkideen elkarte da.

Seaska, Ipar Euskal Herriko ikastolen Federakuntzako elkarte-kidea izanik, bertan ikastola guztiak ordezkatuak dira, denak bat datozelarik ezberdintasuna barne hartu nahi duen eskola izateko xedearekin.

15 SEASKAKO INTEGRazio BATZORDEAekin solasean

Integrazio Batzordea, iparraldeko ikastoletan, ahalmen urriko haurrak beste haur guztiekin batera eskolatzen laguntzen duen elkarte da.

Hezkuntza inklusioa lantzen du. Ahalmen urrikoak izugarri ikasten baitu beste haur guztien ondoan, bai eta beste hurrek ahalmen urrikoaren ondoan. Eta hezkuntzaren sekretua zer da ba, ez bada hurrek elkarrengandik ikastea?



16 BI(H)URRITASUN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak eta ahotsak: Amets Arzallus Antia
eta Maddalen Arzallus Antia

Nire ipuinak izan daitezke
beste munduetarako ate,
nire begiek ortzadarraren
kolore denak dauzkate.
Zuretzat ere izarretara
joateko hegazkin nintzake,
nire gurpildun aulki atzetik
bultzako bazenidake.

Ahalmen urritasun edo bihurritasun
edo urritasuna bera ahalmen.
Gaitasunak gaitasun, zailtasunak zailtasun,
nola ikastola denon etxea den.
Berezko ezintasun edo berezitasun,
ezberdintasunak oro bizitzaren.
Biziaren eskolan guzia da auzolan
ea zu ta ni han elkartzen garen...

Nire urratsak izan daitezke
bide berri baten hastapena,
zu ere leku berrietara
eraman zaitzakeena.
Zu izan zaitez nire makulu,
ta ni izango naiz zure trena.
Elkarri lagun eginez gero
jauzika doa herrena.

Ulertuz

Ulertuz Elkarteak: Bizkaiko haur gorren familia eta lagunen elkarteak.

17 ULERTUZ Elkartearekin solasean.

- Hara, Laura, audifono berria al daukazu?
- Bai! Primeran entzuten dut honekin! Gaur bertan joango naiz ULERTUZeko lagunei erakustera.
- ULERTUZ?
- ULERTUZ, bai. Entzumen urritasuna daukaten Bizkaiko ume eta familien elkarteak.
- Ez nuen ezagutzen...
- Ba, bisitan etorri beharko zara! Egunerokoan ditugun zailtasuntxoak gainditzeko aholkuak ematen dizkigute, gurasoak informatzen dituzte, ondo pasatzeko plantxoak antolatu...
- Aitortzen dizut, ezagutu zintudanean ez nekiela zuri zelan hitz egin.
- Zelan hitz egingo didazu, ba? Aurrez aurre jarri, ondo ahoskatu eta beste edonori egingo zeniokeen moduan erantzun.
- Arrazoi duzu bai. Eta... parean zauzkadanez gero, badakizu zer? Maskor txiki bat dirudiela zure audifono horrek!
- Izan zitekeen bai! Itsasoa bera ere entzuten dut honekin... Badator, badator olatua!



18 MASKORRAREN IPUINA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Miren Amuriza

Ahotsa: Aiora Renteria (Zea Mays)

Ur bazterretik jaso,
daukat maskor pilatxoa,
eta belarrian ipintzean
entzuten dut itsasoa.

Jar zaitez nire parean
eta hotsei segiz,
ezpainak irakurriko
dizkizut hitzez hitz.
Hi-tzez-hitz!

Ur bazterretik jaso
daukat maskor pilatxoa,
eta belarrian ipintzean
entzuten dut itsasoa.

Zeinu hizkuntzan zein ahoz,
ka, ke, ki, ka, ki, ku!
Nahi al duzu maskorraren
ipuina aditu?
A-di-tu!

Ur bazterretik jaso,
daukat maskor pilatxoa,
eta belarrian ipintzean
entzuten dut itsasoa



Kale Dor Kayiko: Ijito Elkarte.

19 KALE DOR KAYIKO Elkartearekin solasean

- Kaixo Ramon, aspaldiko! Nondik zatoz hain irribarretsu?
- Kaixo Arkaitz, Ijito elkartetik nator, Kale Dor Kayiko!
- Ijito elkartetik?
- Kale Dor Kayikok 30 urte baino gehiago ditu. Tio Manuelen laguntzarekin sortu genuen! Jendarte justuago bat lortu nahi dugu.
- Eta zer egiten duzue bertan?
- Elkartean aukera berdintasuna bultzatzen dugu.
- Esan didatenez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duzue, ijito eta ez-ijitoen artekoa... Eta txoritxo batek kontatu dit eskolako ikasketekin ere laguntzen dizutela eta medikua izan nahi duzula haunditan. Asko ikasi beharko duzu horretarako!
- Bai, nire arreba nagusia unibertsitatean dago! Amesten duguna lortu dezakegu!! Hori dio Tio Manuelek! Gainera euskaraz ikasi nahi dut.
- Euskaraz?
- Noski! Ijitoak euskaraz bizi gara! 600 urte hemen gaudela! Euskal kaloa ere badugu, erromintxela. Guri, euskaraz abestea, dantzatzea, familian bildu eta festa egitea, hori maite dugu!!!!
- Batzetan elkar hobeto ezagutu beharko genuela uste dut.
- Hori da Kale Dor Kayiko. Nahi duzunean, zatoz gure kerara!!
- Nora?
- Gure Kerara! Gure etxera! Ongi etorriak zarete!



20 ZATOZ GURE KERARA!

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Arkaitz Estiballes Ormaetxea

Ahotsa: Itziar Ituño Martinez

Jek, dui, trin (*bat,bi,hiru*)
kriskitin,
gitarra zahar ta bibolin...

Panintiñu (*errekato*)
bat telian, (*bat behean*)
zeru izartsu bat uprean... ta (*zeru izartsu bat goian*)

Dantza egingo dugu, pindruekin lurra esnatuko dugu... (*oinekin lurra esnatuko dugu*)
askatasun haizeari goli kerautuko diogu (*askatasun haizeari abestuko diogu*)

Zatoz gure kerara, zurearen palian dago, (*zatoz gure etxera, zurearen ondoan dago*)
zatoz gure festara, zurekin gara... bat gehiago!

Bokali (*gose*)
bagara
barkitxu bat pekautzen dugu... (*arkume bat erretzen dugu*)

Egarriak
zaudenean
paninekoa hortxe duzu... ta (*pitxarra hortxe duzu*)

Dantza egingo dugu, pindruekin lurra esnatuko dugu... (*oinekin lurra esnatuko dugu*)
askatasun haizeari goli kerautuko diogu. (*Askatasun haizeari abestuko diogu*)

Zatoz gure kerara, zurearen palian dago,
zatoz gure festara, zurekin gara... bat gehiago!

Zatoz gure kerara, zurearen palian dago,
zatoz gure festara, zurekin gara... bat gehiago!

JOXE MARI AUZMENDI

Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren sortzailea
eta Bizipoza elkarteko talde eragileko kidea.

21 OLERKIA OPARI

Gure aita amets ekintzaileak bazuen amona Bittoriri hartutako esaldi bat, asko erabiltzen zuena. Lehengo batean, bat- batean nere ezpaina zabaltzean entzun nuena.

Zer egingo diogu ba? Hil arte bizi!

Esan eta egin.

Gogoan utzi digu ere ondorengo olerkia opari, orain, kantu bihurturik saltoka ibil daitekeena ezpainez ezpain.



22 AMETS BAT ESKUETAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Joxe Mari Auzmendi

Ahotsak: Andoni Tolosa Goikoetxea eta Maite Larburu.

Sarrera: Maialen, Izaro eta Olaia Auzmendi Sarasa.

Hartu hondarra esku artean
ta badoa hatz artetik.

Hartzazu ura esku artean
baietz aldegin ertzetik.

Baina guk beste esakera bat
ikasi dugu etxetik.

Hartu amets bat eskutan eta
joan zaitez bere atzetik.

Bizipoza: Eragileak, elkarteak eta boluntarioak elkarrekin eta euskaraz; munduak guztiontzat beharko luke.

23 BIZIPOZA Elkartearekin solasean.

- Kontatu al dizut inoiz bizipozarena?
- Bizipozarena?
- Bai, irribarrearen ipuina.
- Kontatu! Kontatu!
- Bazen behin gizon bat, bibotearen azpian irribarrea ekarri zuena, eta... neska pirata batek eraman zion! Gero, ijito familia batek ikusi zuen neska pirata hura irribarrea zekarrela, eta beraiekin eraman zuten...
- Neska?
- Ez. Irribarrea.
- Ah...
- Kontua da, batek daraman irribarrea beste batek dakarrela.
- A, bai?
- Bai. Oraintxe bertan ikusi dut erbi-irribarredun mutiko bat.
- Orduan... zuk ekarri duzun irribarrea... nik eramango dut?
- Hori da! Eta nik daramat zuk dakarzuna.



24 BIZIPOZA AUZOLAN

Utzidazu bide berri bat
egiten zure alboan jarrita
zurekin eman gura ditut urratsak
gurpildun aulki baten korrika.
Mundu bat, mundu bizi nahi dut.
itsuen begiekin ikusi
gorren belarriekin entzun gura dut
besamotz eskuekin igurtzi.

Joan eta joan
Bidea egin nahi dut zure ondoan
Elkarrekin bada badakit nora noan
Nik zure irriparra daroat
Zuk nire irripara eroan
Bizipoza dugu auzolan.

Biziminez gura dut bizi
fibrosidunek lez arnasa hartu
esklerosiarekin dantza egin nahi dut
ijjitoen azalean sartu.
Bi aita ta ama nahi ditut
bost buru, hogeï beso ehun zango
bakarka ezindu bat naiz, nahi dudana
zurekin baino ez naiz izango.

Joan eta joan
Bidea egin nahi dut zure ondoan
Elkarrekin bada badakit nora noan
Nik zure irriparra daroat
Zuk nire irripara eroan
Bizipoza dugu auzolan.

Musika: Xabier Zabala
Hitzak: Igor Elortza Aranoa
Ahotsak: Aitor Gorosabel Garai, Miren
Narbaiza Martiartu, Andoni Tolosa
Goikoetxea, Maite Larburu, Enrique
Villarreal Armendariz "El Drogas", Oihana
Fernandez Iturri, Aiora Renteria (Zea Mays),
Gari, Josu Zabala, Igor Elortza Aranoa,
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Eñaut
Elorrieta, Anabel Arraiza, Mikel Urdangarin
Abasolo, Itziar Ituño Martinez, Yogurinha
Borova, Xabi Solano Maiza, Amets Arzallus
Antia, Maddalen Arzallus Antia.

Musika Garate estudioan grabatua eta
nahastua; Soinu teknikaria: Kaki Arkarazo

CD

XABIER ZABALA: Zuzendaritza musikala, konposizioa, moldaerak, programazioak eta akordeoak.

Musikariak:

L. M. MORENO "PIRATA": Haize instrumentuak.

IGOR TELLETXEA: Bateria.

RUBEN CABALLERO: Gitarrak.

RITXI SALABERRIA: Baxua.

KAABESTRI: ITZIAR PRIETO, IGOR TORRE, ARKAITZ MARTINEZ ETA YI-WENG WANG: Hariak.

AHOTSAK 008 Estudioa (Mekoleta-Bizkaia) - "*Haizearekin jolasean*" abestiaren ahotsaren grabaketa; Soinu teknikaria: TIMOTEO OZAETA.

GARATE Estudioa (Andoain - Gipuzkoa) - "*Bizipoza auzolan*" abestiaren musikaren grabaketa eta nahasketa; Soinu teknikaria: KAKI ARKARAZO.

VÍCTOR SÁNCHEZ: Grabaketa, nahasketa eta masterizazioa.
2020ko urrian, Elkar Estudioa.

DVD

ARENA COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL: Bideoklipen grabaketa eta postprodukzioa.
AINHOA MOIUA: Zeinu hizkuntzako interpretea.

IRENE LAISEKA HERRANZ: "*Maskorraren ipuina*" abestian zeinu hizkuntza lanak.

EÑAUT AIARTZAGUENA BRAVO: Ilustratzailea.

LEIRE ELIZEGI BELOKI: Ekoizpenaren koordinazioa.

ISA F. DE AGIRRE AMILIBIA: Ekoizpen laguntzailea.

(2020) BIZIPOZA ELKARTEA: Ekoizpena.